



## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 29. JAIAREN HASIERA-EKITALDIA (Bastida, 2022-5-20)

### EHIGE-KO PRESIDENTEAREN DISKURTSOA

Mila esker agintari eta gonbidatu guztiei gaur gurekin egotea erabakitzeagatik, Euskal Eskola Publikoari babesak ematen.

Mila esker urtero Euskal Eskola Publikoaren Jaia egiten laguntzen diguzuen babesle ta laguntzaile guztiei.

Eta mila esker, bereziki, Bastida eta Arabako Errioxako ikastetxe publikoetako hezkuntza-komunitateei, bi urte hauetan elkarrekin egin dugun ibilbide emankorragatik.

“Handitan” gure abestiak esaten duen bezala, nik ere ikusiko nuke gustu handiz Euskal Eskola Publikotik datorren edozein hiritar lehendakari.

Horixe da Euskal Eskola Publikoaren erronka: mailarik goreneko hezkuntza-kalitatea ematea ikasle guztiei. Eta horrekin batera, euskal hezkuntza sistemaren ardatza bihurtzea. Argi dugu hori dela **euskal hezkuntza sistema osoa hobetzeko** bide bakarra.

Gure eredia kalitatezko eskola publikoa da, hezkuntza-komunitatetik gizarterantz eraikia, inklusiboa eta jatorriagatik edo maila sozioekonomikoagatik diskriminatzen ez duena, Euskal Herritik mundura irekia, ikasle euskaldun eleaniztunak hezten dituen, gure kultura ezagutu eta defendatzen duena eta gainerako hizkuntzak eta kulturak errespetatzen dituen. Eskola feminista, laikoa eta doakoa.

Benetako aukera-berdintasuna ez datza hezkuntza aukera guztien doakotasunean, baizik eta ikasle guztiek eta, bereziki, egoera txarrean daudenek, eskola-arrakasta lortzean.

Eskola publikoak gobernantza-eredu berri bat behar du, deszentralizatua eta parte-hartzailea, gizarte-kohesioa bilatzen duten eta elkarrekin aritzen diren eskola publikoen sarea osatuko duena.

Hauxe da guk nahi dugun Euskal Eskola Publikoa.

Eta berau lortzeko, eskola publikoa lehenetsiko duten politikak eskatzen dizkizuegu gaur gurekin hemen bildu zareten agintari eta politikariei.

- Familien ahotsa entzun dezazuen eskatzen dizuegu.
- Eskola publikoa lehenetsiko duen planifikazioa behar dugu.



- Inbertsioak behar ditugu eskola publikoan, familia eta ikasleei kalitatezko hezkuntza eskainiko dienak.
- Irakasleei behar dituzten tresnak eta baliabideak ematea.

Gu ere konprometituta gaude nahi dugun Euskal Eskola Publiko hori lortzearen helburuekin

- Eskola publikoaren partaide izatearen zentzua/sentimendua hobetzea tokatzen zaigu.
- Parte-hartzea sustatzea modu kolaboratibo batean.
- Haur eta nerabeen interesak eta beharrak kontuan hartzen dituzten hiri eta herri hezitzaileak bultzatzea.

Eta abestiarekin amaituko dut: Arabako Errioxa, ez dugu ahaztuko gure hizkuntza maitea, zaindu dezagun denon artean hainbeste urtez izan dena gure territorio librea.

Publikoa da bidea!